

**LOPEZ IDAZLEAREN
OMENALDIA**

Donaixti-Ibarre, 1982-IV-18

DONAIXTIKO EGUNETAN*

Donaixti-Ibarre, 1982-IV-18

*P. Uhart
Auzapeza*

Auzapezaren mintzaldia Euskaltzaindiari

Ez da enetako aise mintzaldi baten egitea eskual akademiako membro handi eta famatien aintzinean.

Lehen lehenik ez niz predikatzale eta, segurrenik ere, misionesta gaixto bat eginen nien.

Eta gero, ene eskuarak, ez ditu akademiako hizkuntzak. Zeren nik ez dut eskuararen gramera igundano ikasi eta ene lenguaia ez da amaren altzoan ikasia baino urrunago heltzen.

Barkatu beraz, ene mintzatzeko manera gaixtoa bada. Barkatu ere, zietarik zonbaitek ez banuzue konprenditzen.

Donaixti hautatu duzue zien biltzarrearendako eta hauta hortaz handizki ohoratzen duzue gure herri ttipia. Eskerrak beraz hauta hortako. Izana gatik ere bi herritarik egina, Donaixti eta Ibarre, gure herria ttipia da eta, gehiago dena, ttipitzen ari da. Direla zazpi urte, bagintuen 400 arima eta orai ez gira hiru ehun eta bost baizik (305). Ez da industriarik ez herrian ez eta ere herri auzuetan.

Hemengo familia gehienak laborariak dira. Ez dute errekoltarik, ogi eta arto biziki guti baizik egiten. Bainan artzainak dira eta etxe bakotxak hazten ditu ehun bat ardi axurdun. Axuria saldu eta ardiak deitzen dira eta esnea saldia da "Roquefort" gasnasen egiteko maiatz artino. Gero, bi hilabetez, ardiak johan dira borturat, han deitziak dira eta artzainak egiten du bortu-gasna. Etxe bakotxak hazten ditu hamabost bat behi gorri.

Denek badituzte tracteur-ak eta mekanika tresna guziak.

* Herria 1649. zenb., 1982-IV-29, astekaritik jasoa.

Eta, bizkitartean, 42-etarik, 18 etxetako nausiak donado dira eta 40 urtez goiti badute. Erran nahi baitu, hemendik eta 20 edo 30 urteren burian, oraiko hamar etxetarik lau hutsak izanen direla.

Huna beraz zer den Donaixti, ez dut erran nahi zeri buruz johan den eta zer izanen den geroa: beldur niz.

Eta herri trixte hori zien batasunak aurten hautatu! Zer gatik hauta hori? Lopez deitzen zen apez bat izan delakotz Ibarren.

Erran behar dut, umilki, egun hotarat artio ez niela Lopez izen hori herrian ezagutzen. Orai ikasi dut jutxitarra zela eta aizin ahala ari zela herriko xaharrentzat galtzerdi egiten. Baina ikasi dut ere Alphonse Rodriguez jesuitak egin liburua "Pratique de la perfection chrétienne" itzuli zuela eskuaraz, eskuara baizik ez zakitenendako. Eta gauza hori 1782-an.

Horiek orok ez dute erran nahi Donaixtik meheximendu handirik badie-la ohoratia izaiteko.

Eta bizkitartean Donaixtik, bi egunez, ikusi duke "zazpiak-bat" obratzen. Barne batean, zazpi probintzietako gizon eta emazte zombait bizi izan zizte sujeta batez, denek zinuaten arrangura bat: eskualdun languaia, denek duzie amodio bat: Eskual Herria.

Eta, doi-doia erraiten nuen bezala, ez badakit zer izanen den Donaixtiren geroa, ez dakit ere zer izanen den Eskual Herriko geroa eta horrendako ere, beldur niz.

Beldur bat badut, funtsezko arrazoinik gabe, baina beldur bat, eskuara izan dadin bera Eskual Herri guzian. Nik, ene gustuz, ez nuke nahi gal dizten leku berezietako mintzatzeko manera liferentak. Enetako domai litake galtzea Lapurdiko "accent" seriosa eta Xuberoko kantuz bezala mintzatzeko manera. Iduri zait potretetz behar balitz erakutsi languaia, Xuberotarra dantzari litakela, lapurtarra arrainkari eta baxenabartarra artzain.

Eskual languaiaren aberastasun bat ez ote da liferentzia hori?

Beldur niz ere Eskual-Herriarentzat. Iduñi zait badela biziki biolentzia Eskual-Herrian. Segurrenik ere, badira biolentzia horien egiteko arrazoinak uste dutenak ukaita. Nik ez dut uste, eta ez dut sinesten deus onik izaiten ahal dela jokatik, gerlatik, elgar hiltzetik.

Horren gatik uste dut bizpahiru egun hotan izan ziitzen bezala ondoko egunetan eta urtetan elgarretaratzen badira zuen nahikundeko gizon eta emazteak, biziko dela Eskual-Herria eta harekin eskualduna, bakean eta bata bestearen errespetian.

LOPEZ IDAZLEAREN OMENEZ

Donaixti-Ibarre-n, 1982, Apirilak 18

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Danaixti-Ibarre-ko alkate jauna.

Euskaltzaindiko jaunak.

Euskal Dialektologi ikastaroko Irakasle eta Ikasle jaunak.

Donaixti-Ibarre-ko eta beste tokitako Jaun-Andreak:

Egun on digula Jainkoak guztioi!

Lehenik ene hitzak zuretzat izan bitez, alkate jaun horrentzat, zeuri eskerrak emateko, alegia, egin diguzun ongi etorriagatik eta hartze amultsua-gatik. Eta gero Donaixti-Ibarre-ko herriarentzat, berebat honi ere eskerrak bihurtzeko.

Bi egun, eta gaurkoaz hirugarrena, daramatza jadanik Euskaltzaindiak herri polit honetan. Be-Nafarroako eskualde hau hautatu du oraingoan Euskaltzaindiak Dialektologiako bilkurak bertan egiteko.

Eta hasteko, bilkura horiek zer asmu edo xederekin paratu ditugun esanen dut. Bilkura horiek izan dira, bada, heldu den udan herriz-herri hizkuntz ikerketak egiten ibiliko direnak aitzinetik eskolatzeko eta prestatzeko. Atzo finitu ziren bilkura horiek, eta egungo ospaketa hau hemengo mintzaira berezian izkiriatu zuen Lopez erretorearen oroitzapenetan egiten da.

* * *

Usaia du gure Euskaltzaindiak Euskal-Herriko eskualde eta toki desberdinak bisitatzea, eta, parada edo okasione batzuetaz baliaturik, beroietan euskararen aldeko besta eta ospakizunak antolatzeko.

Bainan agian galde egingen dit zenbaitek: eta zer da Euskaltzaindi hori? Euskaltzaindia da Euskararen Akademia. Zuek badakizue frantsesak baduela Académie Française delako hori, espainolak Real Academia Española duen bezala. Ez horien parekoa, noski, ttipiagoak eta errumesagoak garenaz geroz-

tik, baina euskarak ere badu bere Akademia. Eta Akademia honen xedea da gure mintzaira hau sustatzea, aitzinatzea eta lantzea. Gure mintzaira bere ahulezia eta flakeziatik ateratzea.

Mende honen hastapenean sortu zen batasun hau, eta ordudanik lanean ari da, bere ahalen arabera, euskaldunek euskara atxiki dezaten. Lan dorpea eta gaitza hartu du beregain Euskaltzaindiak: ontsa dakigu hori guztiok. Euskara bere ahuleziatik atera, gaur-eguneko premia guztietarako erreminta zalui eta trebe bihurtu, a zer lana! Lan dorpea eta gaitza, esan dut, eta euskaldunak berak hortan permatzen badira egingen dena, eta bestela ez. Anitz lan handi eta ttipi ditugu egin beharrak, xede horiek inoiz erdietsiko badira. Eta horietako bat, guztion euskara mueta bat moldatzea, euskaldun guztien artean lokarri izateko balio lezakeena, tokian tokiko mintzaira bereziari zor zaion estimu eta errespetua den gutiena ere galdu gabe.

Euskaltzaindiari maiz egotzi ohi zaio zirto hau: guztion euskara bat muntatu nahi duela, eta, bitartean, eskualdeetako euskalki eta mintzaira bereziak arbuiauto edo gutiesten dituela. Baina gauzak ez dira bat ere hola. Kristok behiala esan zuena datorkit gogora: "Bata egin behar zen eta bestea ez utzi" (Mt 23,23). Akademiak, orobat, uste du guztion euskara bilatzeak ez gaituela tokian tokiko mintzaira berezietarik gibelatu behar.

Euskaltzaindiak nahi du, bai, euskara molde bat muntatu egiazki eta benetan guztion artean lokarri izango dena, eta zenbait zereginetan, hala nola irakaskuntzan, liburuetan, administrazioko arazoetan etab. guztiok enplegatzeke gai izango dena. Eta Euskaltzaindiak nahi du guztion euskara hori, zeren, hori gabe, ez baitu beste biderik ikusten gure hizkuntza bizirik atera eta salbatzeko. Baina Euskaltzaindiak, era berean, estimu handitan ditu tokian tokiko euskal hizkera eta mintzaira bereziak, euskalkiak, etab. Nahi du, gainera, horiek ere iker daitezen eta lant daitezen. Euskaltzaindiak uste du batak ez duela bestea kentzen.

Ba ote da hemen egin ditugun bilkurak baino froga hoberik, Euskaltzaindia herriko hizkerez arranguratzen dela frogatzeko? Bai. Horiek bere buruz mintzo dira. Ezi zertarako egin ditugu bilkura horiek? Herriko euskara ikeretzen ariko direnei hartako metodologia ikasgarazteko. Duela urtebete beste bilkura batzuk egin ziren Deba-n. Haien segida eta osagarri dira Donaixtiko hauek. Maisu onak entzun ditugu, arazo hauetan trebatuak direnak, hala nola, Mitxelena, Ana Mari Etxaide, Karmele Rotaetxe, J. M. Etxebarria, etab. Barneko jardunaldiak izan dira, gure artean lanean hasteko prest dauden gazteen zerbitzutan antolatutak. Eskerrak bihurtu nahi dizkiet, bai gazteei berei, bai eta horien irakasleei.

Zuek badakizute frantsesak aspaldidanik duela egina bere Atlasa. Espainolak ere badu berea. Gaskoinek eta katalanek ere burutua dute nork bere hizkuntzaren Atlas delado hori. Euskaldunek, aldiz, egin gabe dugu oraino. Iaz Deba-n eta aurten hemen Donaixti-Ibarre-n egin diren bilkurak asmu honekintxe eginak dira, bada, hots, langileak lan horretarako prestatzeko.

Heldu den udan eginen dituzte lehenbiziko bilketak, saio edo esperimendu gisa. Uste dugu lan handia izanen dela Euskararen Atlasa burutzea. Atlas hori izanen dugun egunean, euskara, bere osotasunean eta hedadura guztian, den bezala, ezagutzeko tresna izigarri baliosa, behar-beharrekoa eta ezin utzizkoa izanen dugu.

* * *

Eta zerk ekarri gaitu presiski honera, Donaixti-Ibarre-ra, Oztibarreko eskualde eder honetara? Egia esan, eta oker ez banaiz, lehen aldiz heldu da Euskaltzaindia alderdi honetara. Baxenabarreko partean, bai, izanak gara orai baino lehen ere; baina Baxenabarren ere Oztibarre eta Amikuze guztiz bereziak dira. Be-Nafarroa gehiena Elizaz Baionako Diozesakoa zelarik, Oztibarre eta Amikuze, haatik, Akitzekoak ziren. Eta euskal literatura zaharrean badira bi autore hemengo mintzairan izkiribatu zutenak: Tartas eta Lopez, hura Amikuzekoa —mintzoz bederen— eta hau Oztibarrekoa.

Lopez hau hemengo apeza izan zen, eta, hain zuzen, urte honetan betetzen dira berrehun urte bere liburua eman zuela. Horra zerk ekarri gaituen gaur honerat. Lopez-en liburua, *Alphonsa Rodriguez* deritzona, Avignon-en inprimatu zen 1782. urtean. Beraz, aurtengo urte honetan gogoratzen eta ospatzen da gertakari horren berrehungarren urtea.

Lopez apezaz, Ibarre-ko erretore ohiaz, gauza guti dakit nik. Lafitte jaunak esaten digu langile gaitza zela, eta behartsuak laguntzeagatik, galtzerdi egiten aritzen zela, astia zuenean (*Eskualdunen Loretegia*, 1931; 109 orriald.). Dena den eta zernahi gisaz, galtzerdiez gainera, zerbait gehiago ere egin zuen, hots, liburu bat bertako mintzairan, eta horrek aparteko munta du guretzat.

Ez naiz sartuko autore honi eta haren liburuari buruz xehetasunak ematen; horretarako ditugu hemen hizlari bikainak: Aita Lafitte beneragarria, Videgain jauna eta Aita Akesolo. Uste dut horien hitzaldiekin, aski ohoratu ez bada, oroitzapen ñimiño bat bederen eginen diogula Ibarre-ko erretor izan zenari eta hark liburu batez ohoratu zuen hemengo euskarari.

ALFONSA RODRIGUEZ JESUSEN KONPAÑAKO AITAREN

Donaixti-Ibarre, 1998-IV-18

P. Lafitte

GIRISTIÑO PERFETZIONIAREN PRATIKAREN PARTE BAT HEUSKARALA ITZULIA, HEUSKARA BEZIK EZTAKIENENDAKO

1782-an Avignon-en, Antoine Aubanel-baitan agertu zen liburu hori, ekaldeko Baxenabartarren euskalkian.

On da jakitea Frantziak 1801-ean Aita Sainduarekin egin zuen *Concordat* deitu antolamenduaren aintzineko Iparreko Euskaldunak, hiru zatitan bereziak zirela elizaz. Ziberotarrak Oloroneko apezpikuaren meneko zauden; Lapurtarrak eta mendebaleko Baxenabartarrak Baionakoari eratzikiak ziren; eta ekaldeko Baxenabartarrak Akizekoari. Hauien eskualdea deituan zen Akiztar Nafarroa, “la Navarre acquoise”. Hartan zauden Amikuze, Landibarre eta Oztibarre. Apezpikua Akizen zagon, baina Euskal Herrian bazen beti lekuko *bikario jeneral* bat eta *ofizial* bat; askotan apez berak zauzkan bi kargu horiek.

Aipatzen dugun liburuak ez du salatzen nork egina den. Baina Maurice Harriet-ek hitz hauk idatzi ditu Uztaritzen dugun ale bateko lehen orrialdean: “D’après certaines personnes qui les ont connues, les auteurs de cet Abrégé de Rodriguez furent un curé d’Ibarre, nommé Lopez et, en collaboration avec lui, l’approbateur lui-même, Philippe d’Abense, vicaire général d’Acqs”.

Nor ziren bi lankide horiek?

Les Paroisses basques pendant la période révolutionnaire izeneko liburuan, Pierre Haristoy-ek salatzen dauku Lopez hori sortzez Jutsikoa zela, Jean Etcheberri Jutsitarraren herritarra, eta hunen ganik jakina zuen Lopez Ibarreko erretor saindu bat izan zela, aizina zuelarik herriko xaharrentzat galtzerdi egiten ari zela, eta Ibarreko elizan ehortzi zutela. Ez dakigu noiz sortu zen ez eta noiz hil. Marc de Philippes d’Abense delakoaz xehetasun gehixago badugu:

Hubert Lamandek bere *Armorial*-ean Xiberoko aitoren semetzat emaiten dauku, Omize-Gañeko familia batekoa. Abense-tarrak izan ziren Sorrapürüko jaun. Lukuzeko aitorekin ere ahaide ziren, XIII. mendean Nafarroako erret-biltzarretan onetsiak.

Marc d'Abense hori ez dakigu noiz sortu zen ez bainan Jutsin hil zen 1780-ko Ekainaren 24ean eta kalostrapian ehortzi zuten.

Clément Urrutibehety jaun mirikuak Oztibarre xaharrari buruz aurkitu dituen dokumentu balios batzuetarik eta Haristoy-en liburuetarik hauxe jali dugu:

1. Marc d'Abense Jutsiko erretor izan aintzin, Auch-eko diosesan zela Nogaro-ko kalonje.
2. 1766-an Amikuzeko eta Oztibarreko ofizial zela.
3. 1767-an Suarez apezpikuak Jutsin berean Ramonaldeko "prébendier" egin zuela Curutchet baten orde.
4. 1774-an Akizeko apezpikuak izendatu zuela Bikario jeneral.
5. Hil zela Erreboluzioea hasi baino lehen eta Donaixtiko Jean d'Eyherabide erretora haren ondoko izan zela, bai Jutsiko apez bezala, bai Bikario jeneral eta ofizial kondu.
6. Marc d'Abense horri zor zaizkola Jutsiko apeztegia bere inguramen ederrekin. Artetik erraiteko hemezortzigarren mendean herri horrek *Jutsia* zuen izena eta ez *Jutsi* motz-motza.

SUSTATZAILEAK

Alfonsa Rodriguez liburuan den aitzin-solasaren egileak aitortzen du maiz gutziatu duela Euskaldunentzat erdarazko obra miresgarri horren euskaralat itzultzen eta eratzikitzen du: "gure bi jaun apezpiku handiri, Suarez d'Aulan, eta Charles Auguzta Kieni (sic) uken dizit ohoria mintzatzeko gutizia hortzaz, eta biek-elga arimen Salbamendiaren dako obra balios bat zatekeela heuskarala itzultze hori segurtatu nizie, eta erran untsa eginen niela haren eitia".

Louis Marie de Suarez d'Aulan (1697-1785) Avignon-en sortua eta apeztua, *Cevennes*-tako protestanten artera misionest zenbait urte iragan-eta, bere sorterriko kalonje eta kofesor-nagusi zagon 40 urtetan, noiz-eta-ere Aki zerat apezpiku izendatu baitzuten. Diosesa hortan 36 urte iraun zuen, ongi hainitz eginez. Bere euskaldunak ez zituen ahanzten. Heientzat 1750-an amikuztarrez agertarazi zuen katixima bat, 1770-ean emendatu zuena. Gerotzik ere liburu hori bietan segurik ateratu da eta 1815-ean Mgr Loison-ek berriz eman zuen argitarak ekialdeko Baxenabartarrentzat, Akizetik berexi zituztelarik. Suarez apezpikuak kargua utzi zuen 1772-an eta Avignon-en iragan zituen bere azken 13 urteak.

Haren ondokoa izan zen Le Quien de Laneufville euskalduneri biziki atxikia, haren letra batzuek erakusten duten bezala.

BI HITZ ALFONSO RODRIGUEZ JESUITAZ

Alfonso Rodriguez *Práctica de la perfección cristiana* liburuaren egilea, Valladoliden sortu zen 1526-an.

Han-hemenka irakurri dugu ez zela izan fraile xoil bat baizik, atezain arrunt bat, bainan Izpiritu Sainduak bereziki argitua. Ahantzi bide zuten kondatzaile horiek Salamankan ere ibilia zela eskolatzen eta jesuitek berek apeztu zutela. Heien lagundian hogoi urtetan sarturik, frailegai etxetik lekora, bere kideko gazteri hamabi urtez kristau moralala erakutsi zioten.

Gero Andaluziako Montilla hirirat igorri zuten, jesuitagaien maisu; bertalde, lagundiko etxe guzietan hamabortzetik bederen egin behar ziren hitzaldi izpiritualen emaiteko lana leporatu zioten. 30 urtez bete zituen eginbide horiek. Ez bazen ere goi-teologiako erakaspén sakonetan murgiltzen, orok ziotenaz, arimen ezagutzeko eta gidatzeko jeinu bikain bat bazuen.

1593-an lagundiak Erroman izan baitzuen bere bortzgarren biltzar nagusia, Rodriguez harat deputatu igorri zuten: hor ere erakutsi omen zuen zuhurtzia handi bat. Erromatik itzuli-eta Cordoban ezarri zuten prefet izpiritual kondu, jesuiten arimez arta hartzeko eta bere hitzaldi saindueri jarraiki-tzeko.

Orduan buruzagiek gade egin zioten bil zitzan eta ordena hainbertze urtez apailatu zituen erakaspén izpiritualak, liburutan ager-arazteko.

1606-ean Sevillan aurkitu baitzen probintziako biltzar nagusiko, buruzagiek manatu zioten hiri hortan geldi zadin bere liburuaren argitarat emaiteko. 1609-an lan horrek izan zuen bere lehen ager-aldia.

Rodriguez-ek zaharzero nekagarri bat ukan zuen, ezindura oso batek harturik. Sainduki hil zen 1616-eko Otsailaren 24-ean.

ALFONSO RODRIGUEZ-EN LIBURU JATORRETIK ITZULPEN ETA LABURPENETARAT

Rodriguez-ek gazteleraz idatzi zuen bere lana eta ukan zituen hizkuntza hortan elementa bat ager-aldi. Laster itzulpenak jalgi ziren latinez, italianoz, alemanez, anglesez, polonesez, flamanez, greko berriz, hongresez.

Zazpi itzulpen agertu ziren frantsesez: lehena Port-Royal-eko jansenistek jalgi zuten, ongi baliatu eta azkartu baitzituzten obra hortan kausi ditazken garrazkeriak. Rêgnier-Desmarais frantses akademiako idazkari jakintsuak (1675-1676) itzuli zuen *Pratica* mintzaire eder batean: nahiz ez zen bera jansenista, utzi zituen ximenki gaztelerak zauzkan pasarte bortitz eta gogorrak. Ondoko ager-aldi batzuetan apez moltxo batek eztitu eta legundu zuten Rêgnier-Desmarais horren itzulpena.

Jesuita eta bertze elizagizon zenbaitek frailentzat eginikako liburu hortarik nahi ukan zuten girixtino xehentzat on zitazken aholkuak atera eta lan arinagotan ager-arazi. Frantsesez hiruzpalau laburpen segurik argitaratu zituzten. Eskuetan erabili dugun Rodriguez-en lan osoak badauzka 1397 orrialde. Hiru zatitan berezia da. Zati bakotzak baditu 8 sail eta sail bakotxa kapitulu andana batez osatua da: laburrenean badira 7 kapitulu, luzenean 32. Orotara konda ditazke 315 kapitulu.

Euskarazko itzulpenak ez ditu 466 orrialde baizik 74 kapitulurekin.

Aitzin solasak aitortzen dauku baliatu direla Lopez eta Abense laburpen frantses batez, hunek 600 orrialde baizik ez zauzkanaz geroz. Beraz laburpen baten laburpena da. 1609-ko liburitik han-hemenka pasarte batzu hautatu dituzte eta zortzi sailetan antolatu:

- Bizi izpiritualaren estimuaz, 10 kapitulutan.
- Jainkoaren presentziaz, 7 kapitulutan.
- Otoitzaz, 17 kapitulutan.
- Komunione Sainduaz, 7 kapitulutan.
- Meza Sainduaz, 2 kapitulutan.
- Umilitateaz, 8 kapitulutan.
- Jainkoaren borondatera egoiteaz, 6 kapitulutan.
- Garbitasunaz, 11 kapitulutan.
- Jujamendu arinez, 6 kapitulutan.

LIBURUAREN FUNTSAZ

Bixtan da, hainbertze ager-aldi, agerpen, eta laburpen ukan duen Rodriguez-en liburu jatorrak funtsezkoa izan behar zuela eta hortik jin zaio bere arrakesta. Euskarazko haren aldaskak ere bildu du ipar-alde huntan bere famatxoa. Georges Lacombe zenak salatu zaukun (*Gure Herria*, 1931, p. 69) bi itzulpen ukan dituela Lopezen laburpenak, batto lapurtarrez, bertzea ziberotarrez. Damurik ez dira nehoiz argitaratu eta ez dakigu nun dauden gorde-rik.

Seguraz ere balio handi bat atxemaiten zioten gutarteko arimen onerako eta bertuteen kulturako. Alabainan teoria soberarik gabe erakaspén sendo bat bazekarren mintzairé bakun batean; Liburu Sainduen eta Elizako Aiten erranak, konparazione errex, adibide bizi eta ixtorio sustagarriz apainduak eta arinduak zauzkan. Egia erran, egungo egunean zenbait pasarteri garratz eta mutxi aire bat kausitzen deiegu: kontseiluzko baizik ez diren aholku batzu aisegi manamendutzat damazki; ez du erakusten nola mailez-mail aintzina

daiteken ongi osoari buruz, kolpez hartara heltzen ahal balitz bezala; ipuin batzu dakarzki frango zaharkituak.

Halere, oro har, liburuak badu gogoeta sakon hainitz eta eginkizunik aski edozoin mendetako arimentzat.

HIZKUNTZARI BURUZ

Lopez eta d'Abense itzultzaileen euskalkiari buruz bi ikerlan baizik ez dira agertu orai artinokoan.

1948-an Ch. Boudak idatzi zuen: "Les formes respectueuses du verbe mixain" (*Euzko-Jakintza*, II, pp. 595-615).

1967-an A. Lizartzak: "Apuntes léxicos de la traducción bajo-navarra de Alfonso Rodríguez" (*Anuario del Seminario de Filología Vasca*, I, 98-162).

Ez noa lan horien errepikatzerara. Hasteko aditzaren irabioaz ez dut hitzik erranen Charles Videgain-ek baitauka txosten bat gai hortaz apailaturik. Ohartaraziko dut bakarrik liburu guzia *zukako* moduan idatzia dela. Eskualde hortako bertze idazlek *eztabadaka* erabili dute beren aditza. Ikus *Akizeko katixima*, Ibarlako Salaberry-ren *Ebanjelioa*, Jutsiko J. Etcheberri-ren *Almanaka* eta lau liburuak, Bertrand Erdozaincy-Etchart-en *Michel Garicoits-en bizia*.

Huna bakarrik gaingiroki zenbait pondu, xehetasun gehixago hartze luketenak:

A) Ortografia txarra da, ezinago nahasia: *u* eta *ü* ez dira ongi berexten eta ez ere *s* eta *z*; zenbait aldiz *t*-ren orde *l* aurkitzen da; behargabeko letra batzu sartzen dira han-hemenka (cerbitzchatu, mintcatzcecco); eta hitz berak orrialde batetik bertzera idazkera desberdinak jasan behar ditu.

B) Liburu hortako euskalkia (Abense jaunaren gatik ote?) Ziberoko berezitasunez emokatua da: *-tasun*-en orde *-tarzun* dakar: *xahutarzun*, *ezti-tarzun*, *baliostarzun*, *ernetarzun*, etab... *-kin*-en orde *-ki* xoilak: *arrazoin handireki*, *gar ainitzeki*, *huneki* eta *hareki*. *-tze*-ren orde *-te* infinitibo batzuetan: *erorte*, *egorte*, *ekarte*, *ezarte*, *irakurte*, *jalgite*, *ebilte*. *-ei*-en orde *-er* datibo pluralean: *anaier*, *gizoner*, *guzier*, *oroer*, *burier*, etab... *-tik*-en orde *-ti* xoilak ere kausitzen da: *zeluti*, *nunti*, *herriti*. Hitz hainitz aditz batzuen sustraietatik atera dira, *u* atzizki batez jauntzirik: *aipatzetik* jalgi dute *aipü kargatzetik* *kargü*, *hautatzetik* *hautu*, *atakatzetik* *atakü* *pagatzetik* *pagü*, *debekatzetik* *debekü*, etab.... Izen batzu ber-berak dira Xiberon eta ikertzen dugun liburuan: *eki*, *argizagi*, *korpitz*, *belar* (kopeta), *hazkurru*, *axuri*, *ühaitz*. *Jinko*, *gozaita*, *goxama*, etab... Adjetiboak ere: *xahu*, *satsu*, *ütsü*, *orhit*, *ehi*, *berhez*, *txipi*, *seint*, *seindü*, *erpil*, etab... Partizipio zenbait berdin: *üken*, *gogatü*, *ahabi*, *erramarki*, *arrerosi*, *jardiretsi*, *batü* (aurkitu), *debetatü*. Adberbio batzu

ere: *elga, ezi, eziez, belauriko, heben, bena, bezik, aldikal, jitez, llabür, aurte-mein*, etab... Noiztenka hizkuntzapen azkar batzu aurkitzen dira: *beharci behar dici*-ren orde; *beharçu, behar düzü*-ren orde.

C) Bainan Lopez eta Abense-n euskalkiak zor handiak badiozka ere Xiberoko mintzaiari, hainitz kidetasun gelditzen zaizko bai Garaziko bai Lapurdiko hizkuntzekin.

JOSKERA

Gehienez joskera bertze euskalkienarekin ados da gure liburua.

Bizkitartean hauteman daitezke han-hemenka berezitasun zenbait. Huna erakusgai gisa sei perpaus ohargarri:

- *Nahi bada* eri den jinen düzü (aunque, quoiqne).
- Salba nadin *ber*, eztizit axolarik (caso de que, pourvu que).
- Gorputzaren gazki tratatuz (genitiboa partizipioaren osagailu).
- *Nehork* uste badu bekaturik gabe dela (nehor = norbait).
- Beldur izan behar diizi *suge zaharraren* (genitiboaren iraulpena).
- Jinkoak *detsala* hautü huna egin nezan (opazko modua).

AZKEN HITZA

Barkatu otoi txosten hunen luzea. Uste dut halere erran gabe utzi dudala asko gauza. Balio luke norbaitek tesina bati lot lakion Lopez-en eta Abense-n hauziaren osoki xuritzeko.

ADITZ - IZENA LOPEZ IDAZLEAREN LIBURUAN

Donaixti-Ibarre, 1982-IV-18

Lino Akesolo

Mintzaldi hunen gaiak euskarazko gramatika-arau ttipi bat hunkitzen du, Lopez apezaren liburuan ("liburian", Lopez-en arabera) ikusi eta ikertu nahi duguna: idazle hunek aditz-izena nola sortzen eta erabilten duen.

Zertan datza diogun arazu hunen mamia edo funtsa? Lopez-en liburutik aterarik, eman ditzagun zenbait aditz: *sortu, hunkitu, eman, izan, uken, ikusi, iretsi, hautsi, maitarazi, ibilarazi*. Aditz hauetarik nulako aditz-izenak sortzen dira? *Sortzen, hunkitzen, izaiten, emaiten, ekarten, ikusten, iresten, hausten, maitarazten, ibilarazten*, eta hula edo hulatsu beste aditzetan. Baina ez beti eta euskara guzietan bardin. Euskarak eztu gramatika-gai hunetan lege bardiñik erabili beti, eta egun ere euskara guziak eztabiltza bide berek. Aipatu ditugun aditz-izen guzietan azkenean -tzen edo -ten entzun dugu. Noiz bata eta noiz bestea erabil? Horra gakoa, eta horra ez bardintasun bat edo besteren iturria, tokiz toki eta mendez mende.

Ibarreko errot izen zenak badu puntu hunetan bere bidea, batzuetan aski ongi finkatua, beste batzuetan ez hain ongi, ez zalantzarik gabea. Aditz bat bera bi gisatara erabilten du ez gutitan. Dakusagun noiz joiten duen batera eta noiz bestera, eta noiz ikusten dugun dilindan, zalantzan, bi aldetara. Ea puntu hau laburki argitzen dugun.

1. Eta huna lehen-araua, edo bederen guk leenik aipatzen duguna: -tzen derabila azkenean -tu edo -du hartzen duten aditzekin: maitatu (maitatzen), beiratu (beiratzten), agertu (agertzen), hurrandu (hurrantzen), hartu (hartzen), luzatu (luzatzen), gazitu (gazitzen), zabaldu (zabaltzen), gogaindu (gogaintzen), apaldu (apaltzen)... Arau hau ongi finkatua dugu Lopez-en liburuan. Bizkaiko eta Erronkariko euskaratik kanpo, arau hau euskara guzian sendotuenerik ageri den araua da. Hala ere, badu bere hutsa: -tu horrek aitzinetik S edo Z duenera. Orduan eztugu -tzen entzunen, -ten baizik. Huna bost aditz: aberastu, lastu, apeztu, pitztu, hotztu. Lopez-en liburuan euskararik gehienetan bezala, lasten, apezten, pitzten, hotzten, aberasten giten dute.

2. -Tzen derabilia azkenean -E dutenekin ere, Ase, bethe, erre aditzetarik Lopez-ek asetzen, erratzen, bethatzen sortzen ditu. *Asetzen* hori, agian, ezta *ase* adizetik atera, eta bai *asetu*-tik. Baina nabarmenena beste biena da: erre ta bethetik, erratzen eta bethatzen sortzea. Nabarmena da, bainan ez harritzekoa. Ezpaitugu nabarmentasun hunetan Lopez bakarrik aurkitzen. Euskal-literatura zaharragoan ere *erratzen* eta *bethatzen* irakurten baitugu, bai Leizarraga zaharraren liburuetan, baietan berriagoko beste zenbaitenetan. Jokabide bardintsua derabilia Lopez-ek beste aditz batekin. Bustitzen eman orde, bustatzen eman du. Ala ba ote da edo izan ote da *bustatu* formarik?

3. Lopez-ek -tzen formara joiten du -arazi faktitibo delakoaz moldatu aditzekin. Ezta ttipia gero faktitibo horrekin egiñik eman digun aditzzerrenda ahatzarazi, atxikarazi, handiarazi, emanarazi, maitarazi, errarazi, honiarazi, beharazi, iraunarazi, zoriarazi, ibiliarazi, igiarazi, seindiarazi, arhinarazi, finkarazi, sinetsarazi, eta abar eta abar. Abantzu guzietan *-arazitzen* eman du: ahatzarazitzen, maitarazitzen, seindiarazitzen eta hula. Arras gutitan huts egin dio lege huni. Huna hiru adibide: probetxarazi (probetxaraziten), erranarazi (erranaraziten), galarazi (galaraziten). Sinetsarazi aditzarekin uken du zalantzarik handiena. Hiru gisatara eman du: siñetsarazitzen, siñetsaraziten, eta siñestarazten. Azkenengo forma dugu, noski, egungo idazletan hedatuena.

4. Azkenean -N daramaten aditzetan, N hori kendu eta -ten derabilia: jaten, edaten, jiten, egiten edo eiten, eraiten edo eragiten, sogiten (so egiten), irauten eta hula. Bainan -an, -en eta -on azkendunetan I bat agertzen da -ten horren aitzinean: eman (emaiten), erran (erraiten), jasan (jasaiten), igan (igaiten), igaran (igaraiten), ereman (eremaiten), izan (izaiten), uken (ukeiten), egon (egoiten), joan (joaiten). Bardin, *Jo* aditzarekin ere: joiten. Goian aipatu ditugun *jan* eta *edan* gelditzen dira lege hunetarik kanpo: jaten, edaten.

5. -Ten formara joiten du azkena -tsi, -si edo -zi egiten duten aditzetan (arazi faktitiboa kendurik): hasi (hasten), hazi (hazten), egosi (egosten), ihardetsi (ihardesten), utzi (uzten), egotzi (egoitzen), iretsi (iresten), jeutsi (jeusten), nahasi (nahasten), erakatsi (erakasten), ahatzi (ahazten), hautsi (hausten), eta abar. Euskara osoan arau hau hedatuena dugula esan beharrik ote da? Lopez-ek ez dio hutsik egin. Leizarraga zaharrak, adibidez, hazi-tik hazten egi zuen, eta utzitik, utziten eta uziten. Lopez-ek, ez.

6. Azkenean -ri duten aditzetan -ten derabilia gehiesnik edo abantzu beti: jarri (jarten), erori (erorten), ekarri (ekarten), erekarri (erekarten), irakurri (irakurten), eta hula. Idazle zaharrek lege arrunta zuten hau ere. Lopez-en liburuan nehoiz *irakurtzen* badugu, ez dugu ahanzi behar *irakurtu* forma ere badela, gure idazleak erabilia. Horra, beraz, forma bikoitz hunen iturria. Bainan erran dezadan, behin bederen, *erakartzen* ere eman duela.

7. -Gi eta -ki azkendunekin, zalantza ttipi bat badu, gehienetan -ten formara joiten duela: idoki (idokiten), jalgi (jalgiten), jeiki (jeikiten), iguriki (igu-

rikiten), ideki (idekiten), jarraiki (jarraikiten), atxiki (atxikiten); baina beste hauek ere bai: jarraikitzen, igurikitzen, edekitzen, iraungitzen.

8. -Li azkendunekin ere bi aldetara ari zauku, erabilten; eta erabiltzen; gehienetan -zen: ibiltzen, itzultzen, itzaltzen (agian azkeneko hau itzaldu edo itzaldu formatik sortua).

9. Azkenez, aditz bakar bat aipa dezadan: hil. Hiltzen egiten du beti, Leizarragak egiten zuen bezala.

Laburki bederen, horra egungo omenaldia egiten diogun apez idazleak aditz-izenekin erabili zuen jokabidea, puntu hunetan derabiltzan arauak. Hauetako batzuk egun ere bizirik eta zabal dirauten arauak dira. Beste batzuk mende hartan hedatuago, zabalduago zeuden, egungo egunetan baiño. Mendez mende euskarak izan dituen goiti-beheiti batzuk argitzeko jakingariak direla uste dut.

Barkatu ene lantto hunen huskeria, ez-deusa. Ibarreko ertor izan zen hunek gehiago zuen hartze, gehiago merezi zuen. Idatzi zuen liburuak badu zer ikertu, eta zer ikasi. Ni ez naiz lotsa, mende hartako euskal-idazle jatorre-netakoa dugula erraiten... Apal esten zuen bere burua. Izena ere ixilpean gorde nahi izan zigun. Baina liburuari on-iritzia ezarri zion apezpikuari sinesten badiogu, "Diozesako jaun ertor errespetagarrienetarik bat" izan zela aitortu beharko dugu. Berak aitormen apal hau egin zigun: "Heuzkara aski untsa jakin gabea" zela. Hala ere, beste anitzek egiten jakin ez tuten egin du: erdal-liburua euskarara itzultzerakoan, zuhurki intseatu da, euskararen sena, jitea, "ara edo ethortza", berak dioenez, kondutan hartu eta atxikitzen.

Gero, euskaldunei zer irakurri eskeintzerakoan, bide berri bat urratu du. Eztu jo, aitzinekoek jo zuten bezala, ez *Sales-en Philoteara*, ez *Kempis-em Imitationera*. Idazle berria eta liburu berria atera du plazara: Alphonsa Rodriguez-en *Ghiristinho Perfekzionieren Pratika* delakoa, Frantzia bertan Espaiñian baiño gehiagotan argitaratua, zortzi lumek zortzi alditan frantsesez emana. Frantses-itzulpen hauetako bat Frantses-Akademiakoa zen idazle eta gramatikari ospetua batek egiña da: Regnier de Marais jaunak. Eztu, beraz, Lopez-ek hala-hulako liburu hautatu euskaldunei euskaraz emateko.

Liburu luzea da; baina gure ertorak laburturik emango du, "liburu hedatu horren parte bat, jende komunaren hobena dena xoilki heuzkaralat itzuliz, eta besthia utziz", berak dioen bezala. "Kapitulu jende komunaren prootxosenak hautatu tizit, bai eta heendako auher zauzkidan parte zumbait utzi". Eta hau da Lopez-en ametsa: "Jaunak detsala haren gloriatako eta arimen hobetan ene hautian kausitu dudana" (Itzultzaliak irakurtzaliari, 6-7).

Hautu hortan etzuen begi txarra erabili, kausitu zuen, bai. Hala aitortuko du Akizeko Bikari Jeneralak: "Egin dien hautu hunak... bi abantaila besarkatzen tizi: bata emanez liburu net handi ezten batetan zer ere den prootxosenik herrietako populiarendako... bestia, bere laburtarzunaz jenderik

praubenen erosbidian ezarriz". (454-455). Horrela, liburu handia, laurden batera laburtua, merkeago atera da, eta jende praubeentzat erosteko errazago, "ihiago" ere bai. Laburtze hau, zati "prootxosenen" hautu hau, Lopez-ek bere kausa egin du, eta ez zabal zebiltzen xerदारazko laburpenetarik hartuz, aipatu ditugun aitorpenetarik ageri denez.

Ibarreko ertor jaunaren liburua, euskaratzailearen asmotan arimendako balio handitakoa balin bazen, ezta, ez, balio gutitakoa euskararen ikertzailleendako.

Alphonsa Rodriguez-en liburua, erdal-liburua, Espaiñiako Akademiak Gaztelako erdararen lekuko eta eredutzat jarria du. López-ek euskarara itzultzerakoan "euskal-ara" ematen entseatu denean, guk geure hizkuntzaren lekuko eta alde anitzetarik eredutako har dezakegu-erraita bidezkoa da, noski.

Ospe eta euskaldunen esker-ona Ibarreko ertor izan zen gizon jainkotiar, arimazale eta euskalzaleari.

EUSKALZAINDIA OZTIBARREN (1)

1982-IV-18

Joan den apirileko egunak. Doinua: Lili bat ikusi dut

Hemeretzi ehun ta laur hogoi ta bian,
Pazko iragan eta ondoko astian,
Baginuen moimendu Donaixti herrian,
Euskalzaindia baitzen hor gure artian.

Zerk ekarri dituen oi gure xokorat,
Jakintsun handi hoiek gu denen arterat:
Nahi izan baitute jin Oztibarrerat
Gure lehengo apez baten goresterat.

Orai bi mende xuxen Lopez baitzen deitzen
Erretor izan dena orduan Ibarren,
Ez zen urrunekoa, Jutsitar seme zen,
Bere lana kartsuki eiten Oztibarren.

Fedezko liburu bat zuen izkribatu
Zoinekin arbasoak baitira argitu
D'Abens'apezak ere du hortan lagundu
Hau bikari jeneral zen Jutsin gertatu.

Estakurua ona baitzen guretako
Euskalzain horietaz zerbait ikasteko,
Beti iduri hantxet zirela urrunxko
Ez ginuen pentsatzen zirela hunako.

Euskal Akademia zoin zaikun ederra,
Euskararen zaintzeko horrek du indarra.
Jakintsun talde hori ez baita alferra,
Errespetuz beterik diogu agurra.

Oztibarre maitea dute ohoratu,
Agian berak ere ditazke gustatu.
Orai nahi ditugu erremestiatu,
Eta hoiek bezala Euskara lagundu.

Oztibartarra

(1) *Herria*, 1657.zenb, 1982-VI-24, astekaritik jasoa.